

50. urteurrena ospakizun



jakintza
ikastola

ITZALETIK ARGIRA, 50 URTE D'IRA

Ikasleen txokoa Erasmus + proiektua
Zertan gabilitza Konfiantzaren pedagogia LHn



jakintza ikastola

agenda

IRAILA

HAUR HEZKUNTZA

Egokitzapena.

LEHEN HEZKUNTZA

Orokorra: Donostiako zinemaldira.

LH 1: Herriko parkeak ezagutzera.

LH 3: 'Ordizia ezagutzen' irteera.

DBHO

DBHO 2: Heziketa afektibo-sexualeko tailerra.

URRIA

HAUR HEZKUNTZA

HH 3: Azokara.

LEHEN HEZKUNTZA

LH 4: Lizarrusti-Lareo-Barandiaran museora.

LH 5: Iruñeko Planetariora.

DBH

DBH 1: Txuri Urdinera eta Zientzia Museora.

DBH 2: Eko-REc eta Txuri Urdinera.

DBH 3: Deba-Zumaia ibilaldia.

DBH 4: Albaola museora eta mendi irteera

(Pasaia-Donostia).

DBHO

Erasmus Pluseko koordinatzaileen bisita.

AZAROA

HAUR HEZKUNTZA

HH5: Hosto biltzea parkera.

LEHEN HEZKUNTZA

LH 1: Eureka museora.

Txontxongilo emanaldia.

LH 2: Xabierko gaztelura.

Donostiara, Euskadiko Orkestra

Sinfonikoaren egoitzara.

LH 4: Arriarango urtegia.

'Poesia aretoa' emanaldira.

LH 5: 'Poesia aretoa' emanaldira.

LH 6: Arrikutz kobazulora

Txontxongilo emanaldira: 'Murren bidaia'.

DBH

DBH 1: Ailaket taldearekin prebentzio tailerra.

DBH 3-4: Emakumeenganako indarkeriaren

kontrako giza-katea.

DBHO

Emakumeen indarkeriaren kontrako giza katea.

ABENDUA

OROKORRA

Euskararen Eguna.

Batzar Nagusia.

HAUR HEZKUNTZA

Olentzeroren etorrera.

LEHEN HEZKUNTZA

Orokorra: Olentzeroren etorrera.

LH 6: Sasietakoekin tailerra.

DBH

DBH 1: Landutako proiektuaren erakusketa

herrian.

DBH 3: Txuri Urdinera.

DBH 4: Txuri Urdinera.

DBH

DBHO 1: Txuri Urdinera.



MIKEL ETXARRI SARASOLA
Jakintza ikastolako zuzendaria

50 URTE ETA SASOIKO

Gure ikastolak 50 urte beteko ditu ikasturte honetan eta heldutasunak dakarren erritmo motela espero zitekeen arren, abiadura bizian mugitzen ari gara gizarteak daraman martxa azkarrari eutsi nahian. Jakintzako Komunitatea osatzen duzuen guztiok gurekiko erakusten duzuen babesari esker, gu ere indartsu sentitzen gara planteatzen zaizkigun erronka berriei eusteko.

Haur Hezkuntza ezarritako Marko Pedagogiko Berriari jarraipena eman diogu Lehen Hezkuntzako Lehen Zikloan eta, dagoeneko, Bigarren Zikloan ezartzeko urratsak pentsatzen hasita gaude. Bestalde, Ebaluazio Hezigarriaren inguruan azken urteotan eginiko bidean, aurrerapauso sendoak ematen ari gara. Ebaluazio irizpide guztiak zehazten ari gara, ebaluazio tresna berriak sortzen, eta ikasleen portfolioari beste bultzada bat eman nahi diogu aurten.

Hori gutxi balitz, irakurketaren ulermena hobetzeko eta sakontzeko, gure Irakurketa Plana diseinatzen hasita gaude, zeinak ikastolan, liburutegian eta ingurune hurbilean planteatuko diren helburuak eta egingo ditugun jarduerak zehaztuko dituen, besteak beste.

Hori guztia eta beste ekimen garrantzitsu batzuk lantzeko (Bizikidetzeta Plana, Hizkuntza Plana, Komunikazio Plana...) irakasleon konpromisoa eta elkarlana ezinbestekoa zaigu. Poztekoa da zeinen gogotsu eta zeinen eskuzabal ari den gure irakasle taldea. Bejondeizuela!

Bukatzeko, eta erritmo bizi hori ez moteltzeko, 50. urteurrenaren ekitaldiak antolatuzeko hamaika lantalde sortu dira. Bertan, gurasoak, ikasle ohiak eta irakasleak buru-belarri gabilta heritik sortu eta herriarentzat den ikastola, Hezkuntza Komunitate sendoa dela erakutsiz.

Urteko batzarra

Jakintza Ikastola Hezkuntza Kooperatiba Integrala da, eta guraso eta langileak dira bazkide. Artekartzitza organoa eta Urteko Batzarra dira erreferente nagusiak. Neguan sartzera gonbidatzen gintuen eguraldiarekin hasi genuen azken hori. Abenduaren 4an, Villa Eugeniako goxotasunean, urteko gora beherak izan genituen hizpide, bereziki kontu ekonomikoak eta pedagogikoak: gastuak, sarrerak, emaitzak, proiektuak, erronkak... Urtero legez, aurkezpenaren ondoren mokadutxo bat jateko aukera ere izan genuen.

50 AÑOS Y EN FORMA. La ikastola cumple 50 años y con el apoyo de la comunidad vamos haciendo frente a diferentes retos. El marco pedagógico implantado en Educación Infantil se ha ampliado al primer ciclo de Primaria, y se están dando pasos para llevarlo al segundo ciclo. Se están dando grandes avances en torno a la Evaluación Educativa y estamos creando nuevos instrumentos de evaluación para los profesores. Hemos empezado a diseñar nuestro Plan de Lectura. Todo esto y el desarrollo de otras iniciativas es posible gracias al compromiso y colaboración del profesorado. Ahora, de cara a la celebración del 50 aniversario, queremos demostrar que somos una comunidad educativa sólida.

ASAMBLEA ANUAL. El 4 de diciembre tuvo lugar la asamblea anual de la cooperativa educativa Jakintza Ikastola, en la que se trataron temas económicos y pedagógicos: gastos, ingresos, proyectos, retos...

Bidaiatu, bizi, ikasi!

Erasmus + proiektuan parte hartzeko aukera izango genuela jakitean ilusio handiz hartu genuen proposamen berri hau. Gure irakasle diren Jon Unanue eta Larraitz Garmendiak egindako lan gogorra asko eskertzen dugu, izan ere, eurei esker guretzat guztiz ezberdina izango den esperientzia bat bizitzeko abagunea izango dugu.

Hiru herrialde ezberdinetako gazteek –Grezia, Turkia eta Polonia– beraien kulturaren zatitxo bat erakutsi ahal izango digute. Orain IKTko klaseetan taldeka banatu eta hainbat jardura egiten ari gara. Batetik, batak besteari bere ikastetxea ezagutarazteko bideo txikiak sortzen ari gara. Bestetik, hiru herrialdeetako belar eta espeziak lantzen ari gara, horrek historian eta medikuntzan izan duen eragina aztertuz, eta emakumearen papera ere gai honetan garrantzitsua denez, atal hori aztertuko dugu. Horrez gain, ikasturteak aurrera egin ahala gai gehiago jorratuko ditugu. Lanketa horien ondoren aurkezpenak prestatuko ditugu bisitatuko ditugun ikastetxeetan azaltzeko.

Egitasmo honi indargune ugari ikusten dizkiogu. Hasteko, ingelesa da ikasgai honetako hizkuntza nagusia, eta egingo ditugun aurkezpenak hizkuntza horretan egingo ditugunez, ari gara pixkanaka gehiago ikasten. Gainera, bidaiari dagokionez, ingelesa praktikatzeko tartearik ere izango ditugu hizkuntza hau modu errealagoan hobetuz eta lagun berriak eginez. Bestalde, herrialde horietara joaten garenean, beraien etxeetan igaroko dugu astea. Nahiz eta hasieran ezezaguna den pertsona baten etxean sartzeak beldur pittin bat sortu, bidaiaren alderdi aberasgarrietako bat izango dela uste dugu. Abentura polita izango da eta ziur gaude ikaragarri ikasiko dugula!



¡VIAJA, VIVE, APRENDE! Gracias a la gran labor realizada por nuestros profesores Jon Unanue y Larraitz Garmendia, este curso vamos a participar en el proyecto Erasmus +, y realizar intercambios con jóvenes estudiantes de Grecia, Turquía y Polonia. Ya hemos empezado los preparativos, y en las clases de TIC, por ejemplo, los alum@s estamos preparando unos vídeos para presentar nuestro centro educativo. Además, también estamos estudiando las plantas y especias de cada uno de esos tres países para analizar la influencia que han tenido en su historia y la medicina, y el papel que han desempeñado las mujeres en ese ámbito. Al finalizar, elaboraremos unas presentaciones para mostrar en los colegios que visitaremos. A este proyecto le vemos muchos puntos fuertes. Para empezar, el inglés es la lengua que utilizamos en esta materia, y dado que las presentaciones las haremos en ese idioma, estamos aprendiendo poco a poco. El mismo viaje nos proporcionará también la ocasión de practicarlo, junto con la de hacer nuevos amig@s. La duración del intercambio será de una semana, tiempo en que el alum@ de Jakintza pasará en el domicilio de un alum@ de uno de esos países, lo que supondrá una experiencia muy enriquecedora. Esta será una gran aventura de la que aprenderemos un montón.

50 URTE, MUGARRIZ MUGARRI

Urtarrilean 50 urte bete ditu Jakintza Ikastolak. Garaiko giroak bultzatuta, Ordiziako guraso eta gazte talde batek Jose Ramon Gaztañaga buru zuen Guraso Elkartera jo zuen ikastola sortzeko laguntza eske. Proiektua begi onez ikusi, eta 1965. urtean eratu zuten ikastolaren aldeko batzordea, Gaztañaga bera presidente zela. Ahaleginaren ahaleginez, 1968ko urtarrilean jarri zen martxan ikastola. Ondoko lerrootan, Jakintzaren historian mugarri izan diren garai eta erabaki nabarmenenei egiten zaie errepaso.



1971: Zaldibia, Legorreta, Itsasondo, Ikaztegieta eta Amezetatik etortzen hasi ziren ikasleak Jakintzara. OHOk 3. maila egitea etorri ziren bertara.

1973: Nueva ley de Educación para centros de E.G.B. delakora egokitzeko, Jakintzan obra handiak egiten hasi ziren.

1974: Baldintzazko baimena lortu zuen OHOk 8 gelentzako.

1977: Batxilergo ikasketak emateko baimena lortu zuen Jakintza Ikastolak, baina

1979an emateari utzi zion. Ondorioz, ikasleak Beasaingo Lizeora joaten hasi ziren.

1981: Jakintzak lokal premia larria zuen. Udaletxean hainbat bilera egin ondoren, Lurralde Ordezkaritzak San Inazio eskola publikoko lokalak erdibana erabiltzea onartu zuen. **1983an, San Inazioko eskola publikoaren eraikina Jakintza Ikastolaren erabilpenerako geratu zen, oso-osorik**, eta leku faltari lotutako arazoak neurri handian konpondu egin ziren. Haur Hezkuntza gelditu zen soilik Garagartzako etxean.

1984: Ikastolen geroa aztertzeke garaia izan zen, eta planteamendu ezberdinak jarri ziren mahaiaren gainean. Urte horretan egindako

Batzar Orokorrean, EIKE (Euskal Ikastolen Erakundea) eta EEPAREN (Euskal Eskola Publikoaren Alde) alternatibak aztertu ziren. **Ordiziako Batzarra EEPAREN alde** posizionatu zen.

1989: Ordura arte Garagartzako egoitzan zegoen ikastolaren administrazio guztia San Inaziora ekarri zen. Urte horretan egindako Batzar Orokorrean, Jakintza **Ikastolak bere ondarea (Garagartzako lokalak) Eusko Jaurlaritzari ez zeditzea erabaki zuen.**



1990: Garagartzako lokalak, Construcciones Usabiagari saldu zizkion ikastolak. Urte honetan Jakintza **Ikastola berriro hasi zen Batxilergo ikasketak ematen**, nahiz eta horretarako baimenik ez izan.

1991: Jakintzak Haur Hezkuntzarako eraikuntzaren proiektua aurkeztu zuen eta udalak oniritzia eman zion. Urte horretan hasi zen Jakintza Ikastolen Elkarteak bultzatutako **Eleaniztasun Proiektua lantzen 4 urteko haurrekin.**

1968: urtarrilaren 8an, astelehenez, hasi zen Jakintza Ikastola lehen eskolak ematen Sanperio kalean egokitutako lokalean, gaur egungo Pelotazale elkartearen. **50 ikasle** inguru elkartu zituen, gehienak guraso eta laguntzaileen seme-alabak, eta bi andereño: **Rosarito Lasa eta Mari Karmen Oiharbide**. Aurreko urtean, 1967an, Donostiako Andereñoen Erresidentzian hartu zuten irakasle izateko prestakuntza, sei hilabetez.

1970: Garagartza enparantzan dagoen **San Jose ikastetxea** erosi zuten Ikastolako bazkide eta laguntzaileen artean. Urte horretan Jakintza Ikastolak baimen baldintzatua lortu zuen bere heziketa jarduerak garatu ahal izateko. **Fidel Eizagirre** Ordiziako apaiza zen Jakintza ikastolaren titularra.

1992: LOGSE erreformak zekartzan beharrak kontuan izanik, San Inazioko eraikuntzari 3. solairua eman zitzaion. Bertan 12 gela berri egin ziren.



1998: Hainbat errekurtsio jarri ondoren, **INEMek dagokion kapitalizazioa onartu zion**, diru sarrera garrantzitsua jasoz.

Gipuzkoako Aldundiaren **Gipuzkoa Kirolak Saria** lortu zuen. **Ikastolaren 40. urteurrena** ospatzeko hainbat ekintza ospatu ziren: '40 urte, 40 landare' ekitaldi sinbolikoa Villa Eugenioan, ikasle ohien afaria plazan...

2000: San Inazio berrantolatu zen. Irakasle gelak solairu bakoitzean banatu ziren, eta Administrazioa eta Zuzendaritza beheko solairuan. **DBH3. mailan Gizarte arloa ingelesez** lantzen hasi ziren.

2009: Areto berria eraiki zen San Inazioan, eta software libererako migrazioa bukatu zuen ikastolak.

1993: Mugimendu ugariko urtea izan zen. **Jakintza Ikastolak 25 urte bete** zituen. Maiatzaren 2an egin zen urteurrena ospatzeko bazkaria frontoian, Kilometroak 93 jaiari hasiera ofiziala ematearekin bat.

Maiatzaren 24an, Euskal Eskola Publikoaren legeari zegokion batzar orokor jendetsua egin zen Herri Antzokian. **Batzarrak sare publikoan ez integratzea** erabaki zuen.

Villa Eugeniako eraikin berria inauguratu zen irailaren 19an, Haur Hezkuntzarako.

Urriaren 3an ospatu zen Ordizian **Kilometroak 93** festa *Geurea Maratoia* lemapean. 68.000 lagun elkartu ziren. Helburu nagusia, Villa Eugeniako eraikuntzak zekartzan gastuak arintzea izan zen.

1994: Jakintza Ikastolak berriro lortu zuen Batxilergorako ikasketak eman ahal izateko baimena eta kontzertazioa. Urte horretan **Hezkuntza proiektua** onartu zuen Jakintza ikastolak.

1995: Publikatu ez ziren beste ikastola askorekin batera, **Partaide** bigarren graduako kooperatiba osatzea erabaki zen.

1996: Egoera ekonomiko larria zela eta, ordura arteko entitate juridikoa izan zen Jakintza S.A. desagertzea erabaki zen eta **langileen kooperatiba** sortzea.

2002: **Kalitatearen Zilarrezko Q-a** lortu zuen Jakintzak urrian. Ikastolaren intranet-a jarri zuen martxan, eta **Hizkuntza Proiektua** elaboratzen hasi zen, beste 15 ikastolekin batera. 2003an, Anjeles Iztueta Hezkuntza sailburuak bisitatu zuen ikastola.

2004: Inbertsio berriak egitea erabaki zuen ikastolak: San Inazioko patioa estali eta frontoi bat egiteko obrak alde batetik, eta Villa Eugeniako eraikinean estalpe bat egitea bestetik.

2005: **Kalitatearen Urrezko Q-** a lortu zuen Jakintzak azaroan. San Inazioko jolastokian eginiko **frontoi estalia** inauguratu zen, eta Jakintza ikastolako IKT taldeak **IKTeroak** bloga sortu zuen. 2006an, Tontxu Campos Hezkuntza Sailburuak bisitatu zuen ikastola.

2007: Internetak heziketan duen garrantzia dela eta, **Argia Saria** lortu zuen IKTeroak blogak, eta *Euskaljakintzak* estatu mailako gela blog onaren saria.

2008: Jangela berria jarri zen martxan San Inazioan. Jakintzak

2010: Euskal Herriko Ikastolen kooperatiba sortu zen, eta Jakintza ikastola bertako bazkide egin zen. Interneten euskararen erabilera sustatzeagatik, **Buber saria** lortu zuen Euskaljakintza blogak.

2011: Aspaldiko nahia betez **Jakintza Ikastola Kooperatiba** integrala bihurtu zen. Harrekeroko gurasoak eta langileak dira bazkide.

2013: Euskal curriculumean oinarritutako **EKI proiektua** jarri zen abian DBHn.

2015: Koolaborategia, Teknologia gela berria (FabLab) jarri zen martxan, eta liburutegi berria ere bai.

2016: **Konfiantzaren pedagogian** oinarritutako marko pedagogiko berria praktikan jarri zen Haur Hezkuntzan. Ebaluazio hezitzailea sustatzeko **Portfolioa** tresna gisa erabiltzen hasi zen. **Kiva proiektua** jarri zen martxan Lehen eta Bigarren Hezkuntzan.

2017: Konfiantzaren pedagogia garatzen hasi gara Lehen Hezkuntzan. **Erasmus plus** proiektuan parte hartu dute Batxilergo ikasleek.

2018a, OSPAKIZUNEN URTEA

Eguberriekin batera hasiko dira Jakintza Ikastolaren 50. urteurreneko ekitaldiak, eta 2018ko ekainera bitarte hainbat ekintza egingo dira hilez hil. Badago zer ospatua, baita zer egina ere. Ikastolako komunitate osoaren ospakizun urtea izan dadin, nahitaezkoa da norberak bere aletxoak jartzea.

Urtebete baino gehiago da Jakintza Ikastola 2018ari begira jarri zenetik. Ehunka guraso, irakasle, ikasle eta ikasle ohiren ahaleginetik, mende Erdiko ibilia osatuko du urtarrean Jakintzak, eta urteurren borobila gertu zegoela eta, lanari ekin behar zitzaion. Bi batzorde sortu ziren 2016-2017 ikasturtean: 50. urteurreneko liburuari lotutakoa bata, eta ospakizunei begirakoa bestea.

Idoia Guridi, Ainhoa Mujika eta Joseba Otegi irakasleek hartu zuten bigarren batzorde hori dinamizatzeko ardura. Deialdi zabal bat egin, eta hainbat gurasok eta ikasle ohik taldean parte hartzeko konpromisoa hartu zuten. Bilerak egin ahala, eta ideia zaparrada baten ondotik, 2018ko ekintzen zirriborroa esku artean zutela amaitu zuten ikasturtea.

Logoa, lema eta abestia

Ez zen horretara mugatu ordea 50. urteurrenari lotuta iazko ikasturtean egin zen lana. Bi lehiaketa antolatuta ziren, bata urteurreneko lema aukeratzeko eta bestea logoa aukeratzeko. «Harrera ona izan zuen logoaren lehiaketak, eta jende askok parte hartu zuen», azaldu du Josebak.

Beste alde batetik, lemak jaso zituzten. Bien arteko osagarritasunaz erabakitzeke, batzordera eraman zituzten biak ala biak. «Batzordean denok ikusi genituen, eta saillkapen bat egin genuen gehien gustatzen zitzaizkigunekin. Lema bat eta irudi bat oso ondo uztaizten zirela konturatu



ginen», zehaztu du Ainhoak. **Itzaletik argira, 50 urte dira** izan zen aukeratutako mezua.

Eta lema horretatik abiatuta, abestia sortzeko prozesua ere martxan jarri zuten. Abestiaren letra ikastolan bertan egin zuten, eta musika jartzeaz Aitor Furundarena arduratu zen.

Kamisetak eta txosna

Ekitaldiak antolatzeko dirua ere beharrezkoa izaten da. Aurrekonturik ez zegoen horretarako, eta finantzazio bideak zeintzuk izan zitezkeen pentsatu beharra zegoen. Lema eta logoa zeramaten kamisetak aterako zituztela argi zuten, baina bertako dirua ikasleen bidaiaren gastuei aurre egiteko bideratu behar zen. Hartara, Santa Ana jaietan txosna bat jartzeko ideia sortu zen, eta halaxe egin zen.

«Txosnarenak beldur pixka bat sortu zuen. Hasiera batean esaten genuen bi-hiru egunetan irekiko genuela, eta azkenean zazpi egunetan

zabaldtu genuen. Parte-hartze aldetik ez gara garai onenak bizitzen ari, baina sorpresa hartu genuen, gurasoak asko mugitu baitziren. Balorazio oso ona izan zen», nabarmendu du Idoiak.

Eta udari begira beste ekimen bat ere jarri zuen martxan ikastolak: **50 urte, 50 tontor**. Helburua munduko 50 gailurretara igo —edo gehiagotara— eta urteurreneko kamiseta urdinarekin argakia ateratzea. Askok eta asko izan dira harrezkero ekimenean parte hartuz haien argazkiak bidali dituzten familiak. Jakintzaren webgunean eta sare sozialetan daude ikusgai.

Guraso eta ikasle ohiei deia

Oporrak joan ziren, uda bukatu ere bai, eta neguarekin batera hasiko dira Jakintzaren 50. urteurrena ospatzeko ekitaldiak. Ekintzak zehaztuta daude, baina lana dago oraindik egiteko, eta zeregin horretan ezinbestekoa da ikastolako komunitate osoaren parte-hartzea, baita ikasle ohiena ere.

«Ikusten genuen iazko kurtsioan sortu zen batzordea txikia zela hau dena aurrera ateratzeko, eta zabalpen handiagoa eman behar zitzaioala», adierazi du Ainhoak.

Auzolana eta parte-hartzea. Horiexek dira ikastolak beste horrenbeste urte bete ditzan mantendu beharreko balioak. Zorionak, eta jarrai betikoa izaten Jakintza!



Lan-taldeak

- Aurkezpen eguna
- Argazki erakusketa
- Ikasle ohien solasaldia eta ipuin kontaketa
- Tailerrak
- 50 urteurrenoko bazkaria
- Ikastolak izan dituen egoitzetara bisita gidatua
- Mendi irteera

Oharra: Guraso eta ikasle ohiei egin zaie lan-taldeetan parte hartzeko deialdia. Bidalitako formularioa bete eta eman izena!

50. urteurrenoko ekitaldiak

Abenduak 23: Pailazoen emanaldia, Majori kiroldegian.

Abenduak 31: San Silbestre krosa, Ordiziako kaleetan.

Urtarrilak 6: Zortzi finalistekin, bertso saioa, Majori kiroldegian.

Otsailak 2: Liburua, bideoklipa eta abestiaren aurkezpena.

Jakintza ikastolako sortzaileei omenaldia, Delikatuzen.

Martxoak 4: Lilatoia, Donostian.

Martxoak 12 - Apirilak 9: Argazki erakusketa, Barrena jauregian.

Martxoak 17: Bazkaria (ikasle, ikasle ohi, guraso, langile).

Kontzertuak, kanpoko frontoian.

Apirilak 12, 19, 26: Tailer ezberdinen erakusketa, Villa Eugenia.

Apirilak 23: Irakurketa marxa, San Inazioko liburutegian.

Maiatzak 6: Jakintza ikastola egon den egoitza ezberdinetara bisita gidatua.

Maiatzak 19: Benito Lertxundiren emanaldia, Majori kiroldegian.

Ekainak 3: Mendi ibilaldia.

Ekainak 16: Ikastolaren Eguna. '50 tontor' ikus-entzunezkoa.

Varios hitos de los 50 años de historia de Jakintza

- En enero la ikastola Jakintza cumple 50 años. El proyecto surgió por iniciativa de un grupo de padres y jóvenes de Ordizia que contó con el apoyo de Jose Ramón Gaztañaga, entonces presidente de la Asociación de Padres. Estos son varios hitos que han marcado los 50 años de historia de Jakintza:
- **1968.** El lunes 8 de enero se impartió la primera clase en un local de la calle Samperio. La ikastola Jakintza tenía unos 50 alumnos y dos profesoras, Rosarito Lasa y Mari Karmen Oiarbide, que se formaron en la Residencia de Andereños de Donostia para ejercer como tales.
 - **1970.** Los socios y colaboradores de la ikastola adquirieron el colegio San José de la plaza Garagartza. El sacerdote Fidel Eizagirre figuraba como titular de Jakintza. El centro consiguió aquel año una autorización condicionada para desarrollar su actividad educativa.
 - **1977.** Jakintza consiguió la autorización para impartir Bachillerato, pero en 1979 dejó de hacerlo. Los alumnos empezaron a ir al Lizeo de Beasain.
 - **1981.** La ikastola necesitaba más espacio. Tras varias reuniones con el Ayuntamiento, la Delegación accedió al uso compartido del edificio de la escuela pública San Inazio. En 1983 el edificio pasó en su totalidad a Jakintza. En Garagartza solo quedó Educación Infantil.
 - **1990.** La ikastola vendió los locales de Garagartza a Construcciones Usabiaga y volvió a impartir Bachillerato aunque no tenía permiso para ello.
 - **1993.** El 2 de mayo se celebró el 25 aniversario con una comida en el frontón y con el inicio oficial del Kilometroak 93. El 24 de mayo la asamblea acordó no integrarse en la red pública de enseñanza. En septiembre se inauguró el edificio Villa Eugenia de Educación Infantil. El 3 de octubre se celebró Kilometroak 93, con 68.000 asistentes. La recaudación se destinó a Villa Eugenia.
 - **1996.** Obligada por la mala situación económica, Jakintza S.A. se convirtió en cooperativa de trabajadores.
 - **2002.** En octubre obtuvo la Q de Plata de Calidad. Además, puso en marcha la intranet y comenzó a diseñar el Proyecto Lingüístico.
 - **2005.** En noviembre obtuvo la Q de Oro de Calidad. Se inauguró el frontón cubierto de San Inazio y el grupo de TICs creó el blog IKTeroak.
 - **2008.** Se puso en marcha el nuevo comedor en San Inazio. Jakintza ganó el premio Gipuzkoa Kirolak Saria de la diputación. Se celebró el 40 aniversario de la ikastola bajo el lema '40 urte, 40 landare' con muchas actividades: acto simbólico de Villa Eugenia, cena de ex-alumnos en la plaza...
 - **2011.** La ikastola Jakintza se convirtió en Cooperativa Integral. A partir de ahí, los padres y los profesores son socios de la ikastola.
 - **2018.** Un año lleno de celebraciones. Las actividades para celebrar el 50 aniversario de la ikastola se desarrollarán de enero a junio, tras más de un año de preparativos en los que han participado cientos de padres, profesores, alumnos y ex-alumnos. En el curso 2016-17 se crearon dos comisiones, uno para la elaboración de un libro conmemorativo y otro para la organización de los actos del aniversario. Este segundo grupo estuvo dinamizado por Idoia Guriadi, Ainhoa Mujika y Joseba Otegi, y para el final del curso ya tenía diseñado un programa de actividades, además de definido el logo y el lema (*Itzaletik argira, 50 urte dira*) que lo acompañarán y que fueron elegidos por concurso. También se compuso la canción del aniversario, con letra escrita por la ikastola y música de Aitor Furundarena. Por otro lado, pensando en la financiación, en fiestas de Santa Ana se puso una txosna con resultados satisfactorios. Para el verano se organizó también la actividad *50 urte, 50 tontor*, consistente en el envío de fotos realizadas en las cimas de los montes con la camiseta del aniversario puesta. De vuelta a clase, todos los esfuerzos se centraron en el desarrollo del programa de actividades, para lo que se han formado varios grupos de trabajo tras un llamamiento a padres y antiguos alumnos. Cada grupo se encargará de un acto concreto del programa que arrancará el 23 de diciembre con la actuación de los payasos y finalizará el 16 de junio con el Día de la Ikastola.

AZAROAK 25: EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIARI EZ!

Egutegian morez agertzen den eguna. Urtero ospatu nahiko ez genukeen eguna, baina urtero indar handiagoz landu beharrekoa. Hausnarketa egunaz gain, ekintza eguna ere bada, bai ikastetxean eta baita herrian ere, bai gelan eta baita etxean ere.

Batxilergoko lehen mailako talde baten laguntzaz, mezuak, muralak eta atentzioa erakartzeko sareak muntatu ditugu ikastolan. Mezuak garbiak eta zuzenak. Adierazpenak zehatzak: mehatxuen, kontrolaren eta gutxiespen sareetatik ihes egin.

Gaur egungo txiki eta nerabeak, etorkizuneko heldu izango dira eta gizarte hobea baten ametsak urruti daude, balore lanketa eta heziketan horrelako egunei so ez bagaude. Jakin badakigu ez dela egun bakarreko lana, ezta inola ere, baina urtean behin gutxienez parada egin eta elkarrekin aurre egiteak ere merezi du.



GOAZEN PROIEKTUA

Proiektuaren izenarekin, agian, musikalen batekin ausartu garen ustetan erortzeko arriskua dagoen arren, DBH 4ko ikasle talde batekin Ordiziako herrian garatzen ari den proiektu batean murgildu garela adierazi nahi dugu.

Goazen proiektua adineko pertsonekin ostegun goizetan herritik barrena egiten den paseotxo da. Kirola sustatzeaz gain, sozializazio bideak jorratzea ditu helburu. Hiri hezitzaileko eragile ezberdinen eskutik (Zuhaizti, Alotza, Garagunea, Ordizia Kolore, Eguneko Zentroa, Ikastetxeak) gure ikasleak hilean behin proiektuko bi

orduak gurgildun aulkian dauden herriko adineko aitona-amonekin paseatzera irteten dira. Euren burua aurkeztu, goxatu, elkar ezagutu eta goiza elkarrekin pasatzen dute. Amaieran salda beroa ere elkarrekin hartzen dugu!

Aurtengo proiektuari hasiera emateko, Olinpiada batzuk antolatu ziren herriko plaza nagusian eta lehen hiruhilabetea amaitzeko, zer prestatzen arituko ote dira? Hurrengo alerako sorpresa.



– El **Día Internacional contra la Violencia hacia las Mujeres** ha sido, un año más, un día para la acción en la ikastola. Con la ayuda de un grupo de 1º de Bachillerato se han repartido mensajes claros y directos, como evitar las redes de amenazas, control y menosprecio. Los niños y adolescentes de hoy son los adultos del futuro y en la educación de valores debemos aprovechar este tipo de jornadas. – Los alumnos de 4º de ESO participan en el **proyecto Goazen**, que consiste en un paseo que los mayores de Ordizia dan todos los jueves para realizar ejercicio físico y para socializarse. Una vez al mes acuden también los alumnos de Jakintza para ayudar a las personas que van en silla de ruedas y pasar dos horas con ellos.

HAUR POESIA ARETOA

«Bazen behin basoan...». Horrela hasten da Galtzagorri elkarteak, Ordiziako liburutegiaren laguntzari esker, eskaintako haur poesia emanaldia.

Aretora sartu aurretik, dinamizatzaileak egiten die harrera ikasleei eta segituan jartzen ditu poesiaren bidean. «Kabiko kukuak kuki-kuku», eta neska-mutilez osatutako trenak bere bideari ekiten dio. «Kabiko kukuak kukika ari da», badoa Barrena jauregiko eskaileran gora. «Kabiko kukuak kuki-kuku» paretetik oihartzuna itzultzen dute. «Kabiko kukuak kukika ari da», eta iritsi dira aretora. Bertan, urtaro bakoitza irudikatzen duten lau zuhaitz

dituzte zain umeez. Urtaro bakoitza eremu bat da. Poesiaz gozatzeko oasia. Hitzekin jolasean aritzeko aukera. Imajinarioz hegan egiteko parada.

Orubete inguru ematen dute beraientzat ohikoak ez diren erritmo, doinu eta hitz-jolasen artean. Eta amaieran, haur bakoitzak poeta izateko aukera du, bere poema idazteko aukera, bere sormena lantzeko eta bere lanak besteei erakusteko.

Oso urrutikoa dirudien generoa da poesiarena, eta bertatik bertara ezagutzeko eta bizitzeko aukera izan dute LH 4. eta 5. mailako ikasleek. Gozatu ederra hartu dute egitasmo honekin!

KONFIANTZAREN PEDAGOGIA LEHEN HEZKUNTZAN

lazko ikasturtean Haur Hezkuntza hasitakoari jarraipena emanez, Lehen Hezkuntzako lehen zikloan (1. eta 2. mailan) zenbait aldaketa egiten ari gara Konfiantzaren Pedagogia proiektuaren haritik. Izan ere, ezin dugu ahaztu ikasleek dituzten berezko gaitasunak errespetatzea eta horretarako giro egokia sortzea oso garrantzitsua da beraien heziketa modu integralean garatzeko. Hori kontuan izanik, txoko edo gune berriak sortzea izan da egin dugun aldaketa nagusienetako bat. Hala, gure ikasleek matematika, eraikuntza, hizkuntza, irakurketa, plastika eta antzerki txokoa dituzte aukeran, eta bertan material anitza eta proposamen eta eginkizun desberdinak landu ditzakete. Era berean, maila bereko gela desberdinetako ikasleak elkarrekin nahastu egiten dira modu naturalean, eta hor sortzen den giroa oso aberatsa da.

Azken finean, malgutasunak eta aukerak ikasleari bere lekua bilatzen laguntzen dio, eta horrek segurtasuna eta konfiantza sortzen dio. Eta horixe da, hain zuzen, abiapuntua.

Beraz, guztion begirada aldatuz gero, atzetik datozenek konfiantza giroan heziko dira eta zoriontsuak badira, askoz gehiago emango dute.



– Los alumnos de 4º y 5º de Primaria se han sumergido en **el mundo de la poesía** gracias al recital ofrecido por Galtzagorri en la biblioteca de Ordizia. Tras una hora de inmersión en ritmos, tonos y juegos de palabras poco habituales para ellos, cada participante se convirtió en poeta y creó su propia poesía. – La **Pedagogía de la Confianza** ha llegado también a 1º y 2º de Primaria, lo que ha traído cambios encaminados a respetar las capacidades innatas de los alum@s y, en consecuencia, al desarrollo integral de su educación. Uno de los cambios ha consistido en la creación de nuevos txokos o espacios, como los de matemáticas, construcción, lenguaje, lectura, plástica o teatro. que los alum@s tienen a su elección, con material para realizar distintas tareas en cada uno de ellos. Los alum@s de distintas clases se mezclan de modo natural y ello crea un ambiente muy enriquecedor. La flexibilidad y las opciones ayudan al alum@s a buscar su sitio, lo que le confiere seguridad y confianza. Este es el principio.

5 URTEKOAK MENBRILOA EGITEN

Haur Hezkuntzako 5 urteko ikasleak udazkeneko gaia landu dute, eta beste hainbat esparruren artean, urtaro honetako jakiak landu dituzte. Etxetik ekarritako produktu ezberdinekin erakusketa bat egin dute, eta guraso eta familiarterako kide guztientzat egon da ikusgai. Horrez gain, gure irakasleek erronka polita jarri diete haurrei: ekarritako errezil sagar eta irasagarrekin menbriloa prestatzea. Eta zeinen menbrilo goxoa prestatu duten, etxera eramateko oparixto ezinhobe. Zuek bai sukaldari bikainak!



2 URTEKOEI ONGI ETORRIA

Aurten ere gure ikastolara 2 urteko laguntxo berriak iritsi dira. Miriamek eta Amaiak, zaintzako Rakel eta Ainhoarekin batera, ilusio handiz egin diete ongi etorria gure txikitxoiei. Gainera, etxekotze prozesuan gurasoak ikasgelan bertan izan dira, eta lortutako giro goxo eta lasaiari esker, berehala hasi dira gure ikastolako txoko guztiak ezagutzen. Dagoeneko etxean baleude bezala dabilta. Ongi etorri Jakintzako familiara kuadrilla! Nola handitzen zareten ikusteko amorratzen gaude.



SOINUEKIN JOLASEAN

Azaro amaieran, musikarien eguna ospatzeko, Euskadiko Orkestra Sinfonikoaren egoitzan egon ginen LH 2. mailako ikasleekin *Soinuekin jolasean* ikuskizunaz gozatzen. Bertan, guztiok musika sortzeko dugun gaitasunaz jabetu ginen. Soinuen altuera, horien iraupena, horiek sortzerakoan erabiltzen den ozentasuna eta pertsonen ahotsak bereiztea ahalbidetzen duen tinbre edo kolore berezia... Elementu horiei guztiei esker sor daitezke melodiak eta erritmoak, musika azken batean. Baina ezinbestekoa den osagaia falta da: fantasia, hegan egin eta sortzeko gaitasuna emango digun irudimena. Izan ere, musika norbanakoaren barrutik baitator. *Soinuekin jolasean* kontzertuaren helburua izan da baliabide horiek guztiak haurren esku jarzea euren musika sortzeko gaitasunaz jabetu daitezzen. Obra klasikoak nahiz modernoak eta

haur-kantak hartuta, kontzertuko egitarauak lantxo laburrak bildu ditu, horietako batzuk pianoan lau eskurekin jotzeko, biolontxelo eta pianoarako idatzitakoak besteak eta, tarteka, baita geuk kantuz lagundu ditugunak ere. Horrela, entzun, musika sortu, sentitu eta kantatzeko aukera izan genuen.



EKOLIOA

EKOLIO enpresarekin adostutakoaren arabera, Altamirako eraikinean etxean erabilitako olio jasotzeko ontzi bat kokatuko dugu urtariletik aurrera. Plastikozko botila batean ekarri, ontzira bota eta listo!

Ekintza xume horren bidez, ingurumenari ekarpen handia egiteaz gain, biodiesel egitera bideratzen den olio salmentatik ateratako diruaren %10 ekimen eko-soziokulturaletara bideratzen ariko gara; Kilometroak elkarteari, esaterako.

Modu horretara, guztiok irabazten dugu, zuk, guk, ingurumenak eta gizarteak. Animatuko al zinateke gurekin elkarrekin lan egitera zure hondakin kutsatzailea tantaz tanta eraldatu eta baliabide bihurtzeko?



– **Los alumn@s de 5 años** de Educación Infantil han tratado el tema del otoño y uno de los aspectos en los que han profundizado ha sido el de los alimentos de esta temporada, entre ellos la fruta, con la que han montado una exposición; con las manzanas, además, han elaborado un delicioso **membrillo**. – Este año también han llegado **nuevos amig@s de 2 años** a la ikastola, que han sido recibid@s con mucha ilusión por Miriam y Amaia y las cuidadoras Rakel y Ainhoa; tras el proceso de adaptación ya se encuentran como en casa y nosotr@s estamos deseando verles crecer. – Para celebrar el día de los músicos, a finales de noviembre los alumnos de 2º de Primaria asistieron al concierto *Soinuekin jolasean* de la Orquesta Sinfónica de Euskadi, en el que a través de un recorrido por obras clásicas y modernas y canciones infantiles, pudieron escuchar y crear música, sentirla y también cantar. – En enero la empresa **Ekolio** instalará en el edificio de Altamira un contenedor para recoger aceite usado; el 10% del beneficio obtenido de la venta del biodiesel elaborado con ese aceite será destinado a iniciativas ecosocioculturales, como el Kilometroak.

irteera



DBHko irteera

Aurtengo ikasturtea gogoz hasi dute gure DBH 2ko ikasleek. Lehen irteeran, EKO-REC, PET plastikoaren birziklapena egiten duen lantegia bisitatu zuten. Bertan, prozesuaren nondik norakoak zuzenean ikusteko aukera izan zuten. Birziklatutako materialarekin sortzen dituzten objektuak ikustean liluraturik gelditu ziren. Ondoren, autobusa hartu, eta Donostiako Ondarreta hondartzara joan ziren. Eguraldi oso ona zegoenez, bazkaldu aurretik bainu bat hartzeko aukera ere izan zuten! Pilak guztiz kargatuta, Txuri-Urdin izotz jauregira abiatu ziren eta zein ondo pasa zuten! Patinatzeko teknikak gogoratu, jolastu, dantza egin... Irribarre handi batekin bueltatu ziren autobusean kantu kantari.





Ximon Idiakez eta Mari Kruz Largo irakasleak abenduan jubilatuko dira.

Ximoni


Pozik ta irribarrez
Hi Good morning esanez
Ordiziako haurren
Ilusioa gogobetez
Haur eta lehen hezkuntzan
Alde batetik bestera
Inglesa eta jolasa
biak batera
A ze hutsunea
utzi behar diguzun
Bai, egia da hori!
Pron pon pon
*Enjoy your new life and
be happy Ximon!*

(*Doraemon*-en doinua)

Mari Kruzi

Marikruz tokatu zaizu
hainbat une bizitza
berrogeita bat urtetan
haurtxo txikiak zaintzea
nongoa den, nolakoa,
otu gabe galdetzea
zure lema hau izan da:
maitekiro hezitzea
eta administraritzan
mila lautu aditzea
urtero Eguberritan
loteria ekartzea
zorteak ez du nahi izan
bizitza eraldatzea
baina polita izan da
zurekin konpartitzea.

(Xabi Leteren *Habanera*)



jakintzaikastola

Altamira auzoa z/g
Tfnoa. 943 16 05 40
20240 ORDIZIA
www.jakintza.eus
ordizia@ikastola.net

